

67 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2021 / 10 / 24

Bueltan da Zornotzako Krosa: munduko kros lasterketa onenen zirkuituan eta data berriarekin.

Datorren urriaren 24an ospatuko da 67. Zornotzako Nazioarteko Krosa Amorebieta-Etxanoko Jauregibarria Zelaietan.

World Athletics-ek, Nazioarteko Atletismo Federazioak (lehen IAAF), munduan ospatzen diren kros lasterketen egutegia aldatu du. Pista eta ibilbideko lasterketetan egin duten bezala, hiru mailetan banandutako zirkuitu bat sortu dute: Urrea (Gold), Zilarra (Silver) eta Brontzea (Bronze). Zornotzako Krosa maila altuenean sartu dute: Urrezko mailan (Gold). Horrela lasterketa zornotzarrak munduko kros proben zirkuituko gorenera bueltatu da, 1991an eta 2002an gertatu zen bezala.

Gainera, World Athletics-ek, behin denboraldia bukatzen denean, zirkuitu honetako atleta hoberenen artean sariak banatu eta "wild cards"-ak esleituko dituzte Munduko Kros Txapelketan parte-hartzeko.

Guzti honekin batera egutegi aldaketa bat egin dute. 2023tik aurrera, Munduko Kros Txapelketa otsaila erdialdera aurreratuko da (2022ko otsailaren 18an Bathurst hiri australiarrean ospatzekoa zen Munduko Txapelketa 2023ra atzeratu da). Aurreraketa horrek 2020ra arte ohikoa zen kros egutegi guztia aurreratzea eragin du.

Hortaz, Zornotzako Krosa urriaren 24an ospatuko da eta datozen edizioetarako data berdina mantentzea da asmoa.

Kroseko aurkezpena datorren asteartean, hilak 19, ospatuko da Amorebieta-Etxanoko Udaletxeko Etxano aretoan.